



**ARRATIako UDALen
MANKOMUNITATEA**

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA
ARRATIako UDALen MANKOMUNITATEA
2012 – 2015**

Diruz lagundu du:



AURKIBIDEA

1. HITZAURREA	4
2. ESKERRAK.....	6
3. LEGE TESTUINGURUA	7
4. BERDINTASUN PLANA EGITEKO PROZESUA	9
5. EKINTZA PLANA	12
6. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA.....	20

AURKIBIDE ZEHAZTUA

1. HITZAURREA	4
2. ESKERRAK	6
3. LEGE TESTUINGURUA	7
4. BERDINTASUN PLANA EGITEKO PROZESUA.....	9
4.1. BARNE DIAGNOSTIKOA, ABIAPUNTU	9
4.2. EKINTZEN DEFINIZIOA	10
5. EKINTZA PLANA.....	12
5.1. EDUKIA	112
5.2. NEURRIAK.....	13
5.3. EKINTZAK	14
5.3.1.EKINTZA OROKORRAK.....	14
5.3.2. EKINTZA ESPEZIFIKOAK.....	16
6. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA	20

1. HITZAURREA

2011n, Arratiako Udalen Mankomunitateak 2012-2015 Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako **lehenengo planaren** burutzea adostu zuen. Konpromiso honek, etapa berriari ematen dio hasiera, non berdintasuna eta edozein diskriminazioaren desagertzea, bere politiken ardatz estrategikoak izango diren.

Plan berriak, buruturiko ibilbidea ebaluatzen du, alde positiboak batuz, eta hobetu behar diren elementuak identifikatuz, zeintzuek, batutako iritziz eta datuekin batera, langileen eta herritarren egoeraren inguruan, oinarrizko zutabea izan diren, ekintza berriak definitzerakoan, euren **eskumenen** arabera.

Era berean, bere edukiak, araututako marko berrietara egokitzea finkatzen du helburu bezala. Honek, Eusko Jaurlaritzaren otsailak 18ko **4/2005** Legearen planaren egokipena suposatzen du: gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eta legegaldi honetarako markatutako arautegia hain zuzen ere.

Jarraibide berriek ekintza planaren berrantolaketa suposatzen dute. Honek, mankomunitatearen eta bera osotzen duten bederatzi herrien arabera egituratzen da. Helburua, eguneroko ekintzetan, **generoa** txertatzea da, herritarren artean berdintasuna bermatzen duten emaitzak lortzearren, **ekintza positiboak** ezartzen dituen neurriak ahaztu barik.

Berdintasunerako **Plana** mankomunatua da, Arratiako Udalen Mankomunitateko bederatzi **herriek elkarrekin** egitekoa. Hala, nahiz eta errealitate desberdinak izan, herriok **lankidetzan** behar dute berdintasuna lortzeko, eta, krisi garaian, udal txikien arazo zehatzei laguntza mankomunatua emateko, esaterako, aurrekontu urriari eta kudeatzeko ahalmenari erantzun bateratua emateko.

2012ko uztailean, martxan jarri zen Arratiako Udalen Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua. Plan mankomunatuko ekintzak gauzatzeko eta Arratiako bederatzi udalei laguntza emateko tresna egokia da. Elkarlana herri guztientzako ekintza **orokorretan** gauzatuko da, eta udalen esku dauden ekintza **espezifikoak** direla eta, zerbitzuak laguntza teknikoa eman dezake, Udalek egoki iritzi gero.

Herri guztientzako neurri **orokorren** inguruko elkarlana bideratzeko, egiturak sortuko dira, udal barruko koordinazio eta elkarlanerako tresna iraunkorrak ezartzeko, besteak beste: udal langileen prestakuntza hizkera ez sexistaren gainean, generoa txertatzea udal ekintza guztietan, eta abar...; herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak: martxoaren 8a eta azaroaren 25a.

Ekintza **espezifiko**en inguruko elkarlanari buruz, udalen eskumena kontuan izanik, Zerbitzuak euren Berdintasun Planeko urteko ekintzak planifikatzen lagundu dezake, edota diru laguntzak lortzen, kontratazio pleguentzako irizpideak ezartzen edota berdintasun zerbitzuak esleitzen: eta, amaitzeko, Arratiako Emakume Elkarteetan eta Talde feministen Sareari ere laguntza emango dio.

Esandako guztia kontuan izanda, Arratiako Udalen Mankomunitatean Berdintasunerako Plana eta Zerbitzua egoteak ez du eragozten Udalek euren planak zuzenean garatu eta gauzatzea, dagozkien eskumenen arabera. Are gehiago, ekintza batzuek soilik udalek gauzatu ditzakete, eurena delako eskumena.

Era berean, plana ez da helmuga, abiapuntu berria baino. Honek esan nahi du egokitu daitekeen plana dela, ebaluazio, baliabide eta egoeraren arabera. Udalen eta herritarren parte hartze prozesuan, zilegitasuna eskuratzen duena; guztiontzako onuragarria den Arratiarako plana.

2. ESKERRAK

“Arratiako Udalaren diagnostikoa, genero ikuspegitik” izeneko plangintzaren eta egitearen helburu nagusietakoa erakundearekin erlazionatutako pertsona kopuru handiaren parte hartzea sustatzea zen. Helburu hori bete egin ahal izan da, agintaritza politikoak eta langileek parte hartze garrantzitsua izan dutelako diagnostikoa egiteko prozesuan. Gainera, eskerrak eman gura dizkiegu diagnostikoan parte hartu duten guztiei, kontaezinezko ekarpenak eta hobekuntzarako proposamenak egin dituztelako eta, ezelako zalantza barik, sano lagungarria izan da kalitate handiagoko eta bilatzen ziren helburuetarako egokiagoa zen tresna lortzeko orduan.

Eskerrak eman gura dizkiegu diagnostikoaren fase batean edo bestean parte hartu duten guztiei: aurkezpenak, galdetegia betetzea edota elkarrizketak. Eta ezin dugu aipatu barik utzi udalerriko emakumeen parte hartzea. Horiek guztiek balio erantsia eskaini dute euren gizarte esparruaren eta bere hartzaile izango direnen ikuspuntutik, Arratiako emakumeen eta gizonen berdintasunerako jardueren ezarpenerako aurrekarietarako, baldintzetarako, zailtasunetarako eta aukeretarako dagokienez.

3. LEGE TESTUINGURUA ETA ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN AURREKARIAK BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ

Emakumeen berdintasunaren aldeko martxak aldaketak eragin ditu gobernuen jardueretan. Horrela, lege testuinguruak Berdintasunaren alorreko aurrekariak ibilbide luzea dute gaur egun, eta bertan parte hartu dute, beste batzuen artean, hainbat eremutako – nazioartekoak, estatukoak, erkidegokoak, lurraldetakoak eta tokikoak – erakunde publikoek, eta azkenaldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko martxarekin bat egin duten eremu pribatuko zenbait entitatek.

NBE emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurrean konpromisoa erakusten duen erakundea da, eta bertako kide diren herrialdeetan berdintasuna lortzeko neurriak jartzea sustatzen du, emakumeen garapena bultzatzeko, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bermatzeko, gizonezkoek dituzten baldintza berberekin. Neurri horiek alor guztiak hartu beharko dituzte, batez ere politikoa, soziala, ekonomikoa eta kulturala. Erakunde horrek berdintasunarekin duen konpromisoa argi eta garbi islatzen da honako haueetan, besteak beste: 1975. urtea Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatzean; 1979an CEDAW (Emakumearen aurkako Bereizkeria Baztertzeko Batzordea) izenekoak sortzean; Mundu mailako konferentzien antolakuntzan – Mexiko, 1975; Kopenhage, 1980; Nairobi, 1985; eta Beijing, 1995–. Ibilbidea, Nazio Batuen ebaluazioek erakusten duten legez, motelegia den arren, baliagarria izan da berdintasun politikak era eraginkorrean eta iraunkorrean inplementatzeko.

Esangura berarekin egiten du berba Europar Batasunak. Izan ere, Beijingen 1995ean burututako emakumeari buruzko munduko konferentziaren lekukoa hartuz, erakundeetako eta elkarteetako prozesu eta prozedura guztietan genero ikuspegia sartzearen aldeko apustua egin du. *Mainstreaming* edo genero zeharkakotasuna izenez ezagutzen den lan egiteko era horrek kontuan du emakumei eta gizonezkoiei buruzko politika berberaren eragin diferentziala, politika hori birbideratzeko xedez, beharrezkoa balitz. Horrela, EB-k esaten du sexistak ez diruditen erabaki politikoek eragin desberdina izan dezaketela emakumeengan eta gizonengan, ondorio hori aurreikusi ez bada eta bilatu ez bada

ere. Horrela, eragina generoaren arabera ebaluatzearen helburua, gura bako ondorio negatiboak saihestea eta politiken kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea da.

Estatuan, azken urteetan, nazioarteko eskakizunei erantzunez, berdintasunaren trakzio prozesua bultzatzen duen legedia garatu da. Lege horien artean azpimarragarria da Espainiako Kongresuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun efektiborako martxoaren 22an onetsi zuen 3/2007 lege organikoa. Lege horrek eraginak ditu herri administrazioetan zein alor pribatuko enpresetan.

Euskadiko Erkidegoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legeak, jarduera behar berrien, zeharkakotasunaren eta ekintza positiboaren lekukoa hartzen du, eta gure Erkidegoan berdintasuna bultzatzera dator. Legeak, Euskadiko herri agintariek berdintasunaren alorrean izan beharreko jarduera zuzendu eta orientatu behar dituzten zortzi printzipio nagusi ezartzen ditu: tratu berdintasuna; aukera berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero ikuspegia edo genero zeharkakotasuna integratzea; ekintza positiboa; sexuan oinarritutako rolak eta estereotipoak baztertzea; ordezkari-tza orekatua; pertsona anitzeko administrazio erakundeetan sexu bien %40ko ordezkari-tza izatea; eta elkarlana eta koordinazioa administrazioen eta erakundeen artean.

20012tik, Arratiako Udalen Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzu mankomunatua du, eta horren ardura nagusia Arratiako herritarrak sentsibilizatu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu, indarkeria bizi duten emakumeen arreta koordinatu eta emakumeen jabekuntza eta genero berdintasuna sustatzeko ekintzak bultzatzea da. Horretarako, "I. Berdintasun Plana" jarri zen martxan, Osoko bilkuran onartuko dena, berdintasunaren aldeko konpromisoa aitortzeko.

4. BERDINTASUN PLANA EGITEKO PROZESUA

Hemen aurkezten dugun plana, aurretik zehaztu dugun eta Arratiako Udalen Mankomunitateak berdintasunaren alorrean aurrera eraman duen ibilbidearen emaitza da. Horrela, planak beharrak identifikatu, hobekuntzak ezarri eta jarduketarako eremu berriak detektatu ditu. Berdintasun Plan berria burutzeko jarraitu den prozesua lau jarduera nagusitan zehaztu da: azken urteetan berdintasunaren alorrean aurrera eramandako ekintzen ebaluazioa; Arratiako Udalen Mankomunitatearen eta biztanleen diagnostikoa genero ikuspegiarekin; barruko eta kanpoko eragile inplikatuaren parte hartzea jarduerak definitzeko orduan; eta planeko ekintzak gauzatzeko zerbitzuak berrikustea.

4.1. BARNE DIAGNOSTIKOA, ABIAPUNTU

“Arratiako Udalen Mankomunitatearen diagnostikoa, genero ikuspegitik” dokumentua erakundeak hartu duen konpromisoaren isla da. Hala, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak (7e artikulua) agintzen duena jasotzen du. Izan ere, diagnostikoa oinarritzko tresna da Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Arratiako Udalen Mankomunitateko Plan berriaren garapenerako. Planaren azken helburua, Arratian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ibilbide orriaren aldaketa prozesu iraunkorra finkatzea da.

Diagnostikoa diseinatzeko orduan, helburu estrategiko bi izan dira kontuan: ahalik eta pertsona gehien berdintasun prozesuko partaide egitearen beharra eta hori praktikan aplikatu ahal izatea, jarduera proposamen zehatzen bitartez, martxan jarri ziren metodologiaren eta ikerketa tekniken bidez.

Horrela, plangintza metodologikoa helburu estrategiko bi horietan oinarrituz egin zen, eta horretarako lau ikerketa teknika nagusi jarri ziren martxan:

- 1) Barruko dokumentazioa batu eta aztertu zen, batez ere berdintasun politikari eta haren eskumenei eta funtzioei buruzko informazioa. Prozesu horrek aukera eman digu berdintasun politikak ezartzeko orduan dauden zailtasunak, elementu positiboak eta genero ikuspegia sartzeko elementu egokienak identifikatzeko.

- 2) Arratiako biztanleen, Mankomunitateko udalen eta langileen bigarren mailako datuak aztertzea. Azterketari esker, emakumeen eta gizonen egoera ezagutu ahal izan dugu, eta horrela jarduera proposamenak ezarri ahal izan ditugu.
- 3) Langile guztiei, hiru zatiko galdetegia bidali zitzaien (teknika kuantitatiboa). Zatiak hauexek dira: berdintasunaren lege esparruaren ezagutza, berdintasun alorreko prestakuntza eta bizitza pertsonala, etxekoa eta lanekoa bateratzea. Galdetegiaren azterketari esker, egiturarekin berarekin erlazionatutako zenbait jarduera eremu detektatu ahal izan dugu.
- 4) Elkarrizketak egin genituen politikariek eta langileekin (teknika kualitatiboak). Teknika horren helburua informazioa alde bietatik batzea zen: alde batetik, informazio idatzia osotzeko, udalaren eta mankomunitatearen berdintasunaren alorreko ibilbideak; eta beste alde batetik, bertako zerbitzuen jarduteko eremuak identifikatzea, helburu sozialaren eta hartzaile izango direnen arabera. Horrek aukera eman digu Udalentzako eta Mankomunitatearentzako jarduerak identifikatzeko.

4.2. EKINTZEN DEFINIZIOA

“Arratiako Udalaren diagnostikoa, genero ikuspegitik” izeneko dokumentua ekintzen definizioaren abiapuntua da. Ekintzok, honako hauen bitartez osatu eta hobetu dira:

- 1) Egindako jarduerak aztertzea eta hobetzen jarraitu beharreko jarduerak identifikatzea. Izan ere, gauzatu bako ekintzak jaso dira eta oraindik estrategikotzat hartzen diren jarduerekin jarraitzea aurreikusi da.
- 2) Arratiako biztanleei buruzko datuen azterketa, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak erakusten dituzten dimentsioei aurre egingo dizkieten jarduera ildoak ezarri ahal izateko.
- 3) Erakundeen parte hartzea ekintzak aukeratzean eta zehaztean, politikarien zein langileen aldetik, funtsezko zenbait datu adieraziz, gauzatzeko egutegia, aurrekontua, arduraduna...
- 4) Parte hartzea Arratiako emakume elkarten eta talde feministen Sarearen bitartez. Sareak proposamenak egin ditu eta Berdintasun Planean sartu dira.

Ekintzak definitzeko prozesuan, kontuan izan dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakunderen jarraibideak: ardatz estrategiakoak, helburuak, programak, ekintzak eta adierazleak, besteak beste.

5. EKINTZA PLANA

5.1. EKINTZA PLANAREN EDUKIA

Aurretik esan den moduan, Plana bat dator 18ko 4/2005 Legeak agindutakoarekin eta Emakundek Legealdi honetarako markatu dituen jarraibideekin. Horrela, planak honakoak jaso ditu:

- **Sailak-Arloak-Zerbitzuak:** berdintasuna lortzeko lanean erabiliko diren esku hartzeko eremu funtzionalak dira.
- **Ardatz estrategikoak:** Hurrengo urteetan landu beharreko berdintasun politika alorreko lehentasunezko gaiak zein diren definitzen dituzte. Hiru ardatz estrategiko identifikatzen dira: jabeakuntza, erantzunkidetasunean oinarritutako antolakuntza eta indarkeria; horrez gain, berdintasunaren aldeko gobernantza jardura.
- **Programak:** Jardura eremuak dira. Eskumen bakoitzeko berdintasun politiken ardatz estrategikoak nola zehazten diren definitzen dute, eta, ondorioz, ardatz bakoitzeko, esku hartze programa bat egongo da gutxienez.
- **Helburuak:** Programek helburuak dituzte, aldatu nahi den errealitate soziala definitzen dutenak. Helburuek, egin behar denari lehentasuna emateko eta, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioaren bitartez, emaitzen nondik norakoa zehazteko funtzioa betetzen dute. Horrez gain, proposatutako eta erabilitako estrategien eraginkortasun maila ere adieraziko dute. Helburu zehatzak eta neurgarriak izan beharko dute, operatiboak eta erraz ulertzeko modukoak, eta, ondorioz, zehaztu egin beharko da lortu nahi den xedea, horiek osatzen dituzten eta nahasgarriak izan daitezkeen kontzeptuak argitu eta mugatu egiten dira, eta gizarte azterketaren adierazleak definitzen dira.
- **Tresnak:** Proposatutako ekintzen esanahia zein den adierazten dute, hau da, helburua lortu ahal izateko aurrera eraman beharreko ikuspegi eta lan prozesu posiblea eta egokia deskribatzen dute. Honako hauek ezartzen dira: ezagutza, sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena; prestakuntza; baliabideak eta zerbitzuak; arauak; jarraipena.
- **Ekintzak:** helburuen adierazpen zehatza dira. Ekintzek, elkarren artean lotura izateko logika dute, elkarren artean jarraikortasun erlazioa

dagoelako (batzuk besteen mende daudelako), batuketa efektua bilatzen dutelako eta, azkenik, hainbat eremutatik edo tresna desberdinak erabiliz, emaitza berbera bilatzen dutelako. Berdintasun ekintza mota bi dira nagusi: izaera amaikorra duen *ekintza positiboa*; eta iraunkortasun ezaugarriak dituen *zeharkako ekintza*. Planean mota biak erabiliko ditugu, baina lehentasuna emango diegu zeharkakoei.

5.2. PLANA EZARTZEKO NEURRIAK

Emakunderen, nazioarteko erakundeen gomendioei eta legeen aginduei jarraituz (4/2005 legea, 10. eta 15. artikulua), planaren ezarpen iraunkorra eta jasangarria posible egingo duten egiturak sortzea edota jarraipena ematea beharrezkotzat da. Horrela, egitura mota bi bereizten dira Arratiako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana (2012 - 2015) ezartzeko. Ondoren aurkezten dugun ekintza planean batu dira:

- 1) **“Berdintasun Planaren Jarraipenerako eta Ebaluaziorako Osoko Bilkura”** izatea, gutxienez urtean behin. Helburua jardueren ebaluazioa egitea eta ebaluazio horretan oinarrituz, urteko ekintza plana antolatzea da.
- 2) Arratiako Emakume elkarten eta talde feministen Sarearen parte hartzea sustatzea.
- 3) Era berean, eta Ekintza Planean agertzen den moduan, eskualdeko, lurraldeko eta erkidegoko sareetan eta egituretan parte hartzea bultzatuko du.
- 4) **Aurrekontuak** izartxoak dauka, ekintzak garatuko dituzten ordu kopuruen araberakoa delako, Berdintasun Zerbitzua eta udaletan ekintzak inplementatzeko partidak Arratiako Udalen Mankomunitatetik bideratuko direlako, hain zuzen ere, 750 euro ekintzako.

5.3. NEURRIAK

Diagnostikotik ateratako neurriak, guztira, hirurogeita bost (65) dira. Hogeita zortzi (28) orokorrak dira mankomunitaterako eta bederatzi udaletarako eta hogeita hemeretzi (39) espezifikoak Berdintasun Zerbitzurako eta Gizarte Ekintza Arlorako.

5.3.1. NEURRI OROKORRAK

1. Urtero, Osoko Bilkura bat egingo da Berdintasunerako Plana ebaluatzeko eta jarraipena egiteko.
2. Jarraipen, koordinazio eta lankidetzak egiturak egokitu, sortu eta eratzea, Plan mankomunitatea eta udal ekintzak garatzeko: barne lantaldea- Arratiako Udalen Mankomunitatea; eta udalen artekoa- Berdintasun Taldea.
3. Berdintasun Zerbitzu mankomunitatea sortzea eta mantentzea.
4. Arratiako Udalen Mankomunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planaren jarduerak eta konpromisoa zabaltzea langileen udalen eta herritarren artean.
5. Mankomunitatearen berdintasunerako konpromisoa bistaratzeko, berdintasunaren aldeko mundu mailako kanpainetan parte hartuz (martxoak 8, azaroak 25,...)
6. Udalen planekin bat datorren Plan mankomunitatearen implementazioa sustatzea.
7. Berdintasun politikak Presidentzian eta Alkatetzatan txertatzea.
8. Urteko aurrekontuetan, berdintasun politikak inplementatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea eta gauzatzea.
9. Presidentziako eta Alkatetzako dokumentuak aztertu, egokitu eta sistematizatu irudi eta hizkuntza ez sexista erabiltzeko.
10. Jardueretan, sexu aldagaia jasotzea eta lantzea.
11. Diagnostikoan identifikatutako arloei buruzko prestakuntza programa zehaztea langileentzat eta politikarientzat: legearen inplikazioa, berdintasunaren oinarriak,

hizkera, genero ikuspegiaren aplikazioa, datu desagregatuak jasotzea, partaidetza paritarioa eta lana eta bizitza pertsonala bateratzea.

12. Aldizka, langileen sexuaren araberako datuak jaso eta aztertzea generoari lotutako aldagaiekin eta estereotipo bako hobetzeko ekintzak ezartzea lanean sartzeko, garatzeko eta mantentzeko.

13. Sei adierazleak aztertu eta herritarrentzako hobekuntza proposamenak ezartzea, "EqualX Eskualdeak" genero berdintasun indizearen inguruan. Izan ere, indizeak Arratiako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun maila erakusten du.

14. Teknologia berrietarako sarrera sustatzea herritarren artean, bereziki, emakumeen artean.

15. 4/2005 Legearen aginduei jarraituz, udal araudietan genero ikuspegia txertatu eta jarraipena ematea: kontratu, hitzarmen, diru-laguntza eta bestelako laguntzetan.

16. Genero ikuspegia sartzeko garapenerako nazioarteko elkarlanerako ekintzetan.

17. Emakumeen kultura ekintzailea bultzatzea, batez ere turismorako zerbitzuen sorreran, merkataritza jarduera berrietan eta tokiko enpresen garapenean.

18. Emakumeentzako informazio, orientazio eta prestakuntza programak garatzea, lan merkatura errazago sar daitezten.

19. Genero ikuspegitik emakumeek egindako jardueren diru laguntzak aztertzea, berdintasuna sustatzeko irizpideak ezartzeko.

20. Genero irizpideak ezartzea beste herri batzuekin egiten diren trukaketetan eta senidetzeetan

21. Emakumeen jarduerarako eta Arratiako Emakumeen Sarea batzeko lokalak erraztea

22. Korporazioan, gobernu taldean, langilerian eta herritarrei eskainitako baliabideetan osaketa paritarioa sustatzea diru laguntzak emateko orduan (sexu bakoitzak gutxienez %40, eta gehienenez %60)

23. Bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzeko eta erantzunkidetasunerako ekintza plana garatu eta zabaltzea udal eta mankomunitateko langilerian eta gobernu taldean.
24. Bateratze neurriak ezartzea mankomunitateak edota udalek antolatutako ekintzetara doazen gurasoentzat.
25. Emakume erabiltzaileen beharrak indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzuetara eta baliabideetara zelan bideratu ezartzea.
26. Erakundeen arteko Protokoloaren Koordinazioa garatzea, zerbitzuok erabiltzen dituzten emakumeei arreta hobea emateko.
27. Esku hartzen duten erakundeen arteko koordinazioa garatzea: Ertzaintza, Epaitegia, Osakidetza, Foru Aldundia, Eudel eta Eusko Jaurlaritza.
28. Udalentzat eta Mankomunitatearentzat, sexu-jazarpena, jazarpen morala eta psikologikoa prebenitzeko eta artatzeko gida egitea.

5.3.2. NEURRI ESPEZIFIKOAK

1. Planaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko urteko Osoko Bilkurako dokumentazioa garatzea.
2. Jarraipen, koordinazio eta lankidetzaren egituren batzarretako edukiak garatzea Plan mankomunitatea eta udal ekintzak garatzeko: barne lantaldea- Arratiako Udalen Mankomunitatea; eta udalen artekoa- Berdintasun Taldea.
3. Arratiako Udalen Mankomunitateak Berdintasun Sareetan eta Foroetan parte hartzea koordinatzea (Berdinsarea-Eudel; Emakunde; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna Eudelen toki politikan; Genero indarkeriaren Bizkaiko Behatokia; etab.)
4. Udalei berdintasun jarduerak gauzatzen laguntzea eta kolaboratzea, bai bertaratuta, bai on-line.
5. Gizarte eragileei, enpresei eta elkartei laguntzea eta beraiekin kolaboratzea berdintasun ekimenen eta legeen inguruan.

6. Berdintasun Zerbitzuak garatutako ekintzei buruzko hileroko txostenak egitea.
7. Arratiako Udalen Mankomunitatearentzako eta udalentsako diru laguntzak eskatzea erakunde publikoei (Eusko Jaurlaritzza, Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia...)
8. Arratiako Udalen Mankomunitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren (2012-2015) konpromisoa eta ekintzak hedatzea mankomunitatean, udaletan eta herritarren artean.
9. Berdintasunaren aldeko kanpainen edukiak garatzea (martxoak 8, azaroak 25...)
10. Planaren implementazioa sustatzea, Arratiako Udalen Mankomunitatearen eta Udalen helburuekin bat datorrena.
11. Mankomunitateko eta udaletako langileen prestakuntzarako ekintzak garatzea, genero ikuspegia udaleko ekintza orokorretan txertatzeko: komunikazioa; araudia; diru-laguntzak, kontratazioak, aurrekontua, ...)
12. Gainerako erakunde publikoekin batera, generoaren inguruko batzarrak eta tailerrak identifikatu, aukeratu eta eskatzea, generoa txertatzeko jardunbide egokiak partekatu eta Mankomunitatearen eta Udalen ekintzetan eredarri izan daitezen.
13. Erakunde publikoek antolatutako prestakuntzarako jardunaldiak identifikatu, aukeratzea (Eusko Jaurlaritzza, Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia), Mankomunitateko eta udaletako ordezkariak bertara joateko.
14. Zerbitzuaren politiketan generoa zeharkako lerroa izatea.
15. Hizkuntza eta irudi ez sexistaren erabilera aztertu, egokitu eta sistematizatzea Presidentziako eta Alkatetzako dokumentuetan.
16. Sexuaren aldagaia jaso eta tratatzea Alkatetzako jardueretan.
17. Indarkeriari aurre egiteko zerbitzuetako emakume erabiltzaileentzako jabeakuntza tailerrak sustatzea.
18. Gizarte Ekintza arloko emakume erabiltzaileen kopuruak bistaratzea.

19. Gizarte Ekintza arloko emakume erabiltzaileentzako ekintza positiboak ezartzea.
20. Genero ikuspegia txertatzea Arloaren araudian
21. Emakume etorkinek elkarteetan parte hartzea sustatzea
22. Zerbitzuak antolatutako ekintzetan partaidetza paritarioa sustatzea
23. Arratiako Emakumeen Sarearen ekimenak batu, garatu eta koordinatzea.
24. Emakumeen jarduerarako eta Arratiako Emakumeen Sarea batzeko lokalak erraztea.
25. Arratiako elkarteetan osaketa paritarioa sustatzea diru laguntzak emateko orduan (sexu bakoitzak gutxienez %40, eta gehienenez %60)
26. Bateratze neurriak ezartzea emakumeen sareak, mankomunitateak edota udalek antolatutako ekintzetara doazen gurasoentzat.
27. Emakume erabiltzaileen beharrak zelan bideratu ezartzea indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzuetara eta baliabideetara.
28. Emakume erabiltzaileei eskubideen eta baliabideen informazioa ematea, idatziz eta berbaz.
29. Gizarte zerbitzuetako emakume erabiltzaileentzako jabeakuntza tailerrak antolatzen jarraitzea.
30. Biktimei laguntzeko eta barne eta erakundeen arteko koordinaziorako aditua izaten jarraitzea.
31. Beharrezko baliabide teknikoak izatea (telematikoak) zerbitzua egoki garatzeko.
32. Aldika, arretaren elementu garrantzitsuen ebaluazioa egitea (konfidentziasuna bermatzea, zerbitzuen eskaria eta eskaintza aztertzea, datuen bilakaera, baliabideak erabiltzeko irizpideak, etab...)
33. Ertzaintzarekin, Epaitegiarekin eta Osakidetzarekin erakundeen arteko koordinazioa ezartzea, indarkeria matxista kasuetan arreta hobea emateko.

34. Erakundeen arteko koordinaziorako protokoloa garatzea, zerbitzuetako emakume erabiltzaileen arreta hobetzeko.

35. Arratiako Udalen Mankomunitateko barne koordinazioa mantentzea ardura dutenekin.

36. Herritarrentzako sentsibilizazio ekintzak garatzea (martxoak 8, azaroak 25, etab.)

37. Gazteentzako prebentzio ekintzak garatzea.

38. Gizonentzako prebentzio ekintzak garatzea.

39. Arratiako hedabideek inplikatzeko ekintzak garatzea (Areatza Lantzen, Begitu, Gorbeialde Irratia...) emakumeenganako indarkeriaren kontra eta berdintasunaren alde egin dezaten era aktiboan.

6. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

6.1. ARRATIAKO UDALEN BERDINTASUN PLANAK

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Areatzako II. Plana. 2010-2013.

Arteako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana. 2009-2012

Bediako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana. 2009-2012

Dimako andren eta gizonen berdintasunerako I. Plana. 2010-2013.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Igorreko I. Udal Plana. 2011-2014

Zeanuriko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana. 2012-2015

6.2. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I Foru Plana (2000-2003)

Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II Foru Plana (2004-2007)
http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO1/Temas/Pdf/Plan%20Foral%202004-2007_cas.pdf

Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III Foru Plana (2009-2011)
http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5305

383/2006 Foru Agindua, maiatzaren 18koa, presidentziako idazkari nagusiarena, Bizkaiko Foru Aldundiko oinarritzko prozesuetan generoaren ikuspegia integratzeko protokoloak onartzen dituena.
<http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO1/Temas/Pdf/orden%20foral%20escaneada.pdf>.

Bizkaiko Foru Aldundia. 2004. Bizkaiko Foru Aldundiko prozesuetan jarduera protokoloak genero ikuspegiarekin.
http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO1/Temas/Pdf/dossier_protocolos_c.pdf

Bizkaiko Foru Aldundia. 2007-2006-2001. Erakundean generoaren ikuspegia sartzeko gomendioen eskuliburua.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Arratiako plana

http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO1/Temas/Pdf/ManualRecomendaciones_v3_%20marzo2007.pdf

6.3. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako.
http://www.emakunde.es/images/upload/LeyIO_c.pdf.

EAEn Emakume eta Gizonen arteko IV. Berdintasun Plana. VIII. Legealdiko Gidalerroak.
http://www.emakunde.es/images/upload/IVPI_c.pdf.

Emakume eta Gizonen arteko IV. Berdintasun Plana gauzatzeko Aginte Publikoen Jarduera Txostena. 2006.
http://www.emakunde.es/images/upload/MemoPP_06_c.pdf

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako dena, inplementatzeari buruzko hasierako ebaluazioa. 2006. Emakunde.
http://www.emakunde.es/images/upload/EvalExAnteLeyIO_c.pdf.

5/2007 Ebazpena, otsailaren 14koa, Gobernu Idazkaritzaren eta Sailekin Harremanen Zuzendariarena, Gobernu-kontseiluak hartutako erabakia, hau da, "generoaren arabera alde aurretiko inpaktua ebaluatzeko gidalerroak onartu eta desberdintasunak deuseztatu nahiz emakume eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko neurriak eranstea" argitara dadin xedatzen duena.

213/2007 Dekretua, azaroaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako sailetan eta organismo autónomo nahiz erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatzez eta koordinatzez arduratzen diren administrazio-unitateak arautzen dituena.

118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, lan- eta familia-bizia bateratzeko neurriak arautzen dituena.
http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20070727&a=200704251.

Euskadin emakume eta gizonen egoerari buruzko zifrak. 2006. UPV/EHU: Arantxa Elizondo, Eva Martínez, eta Ainhoa Novo Emakunderekin batera.
http://www.emakunde.es/images/upload/Cifras_%202006_c.pdf.

Eusko Jaurlaritza – Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Defentsa Bulegoa.2008. Emakumeak eta zuzendaritza-postuak: berdintasunaren miragunea. EuskoJaurlaritza, Gasteiz

Emakunde. 2009a. 2008an Euskadin erabakiak hartzen diren eremuetan emakumeen eta gizonen presentzia. Emakunde, Gasteiz.

Emakunde. 2009b. EAEn emakumeen ibilbide eta egoera profesionalean desberdintasuna. Emakumeen talentua galtzearen kostu erlatiboa. Emakunde, Gasteiz.

Euskadin emakume eta gizonen egoerari buruzko zifrak. Iturria: Eustat, INE, Lanbide...

6.4. ESTATU MAILA

30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egindako araudi-xedapenetan generoaren inpaktua baloratzeko neurriei buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2003/10/14/pdfs/A36770-36771.pdf>

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren kontra Babes Integrala lortzeko Neurriei buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2005/04/12/pdfs/A12505-12506.pdf>.

13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan Kode Zibila aldatzen duena.

<http://www.boe.es/boe/dias/2005/07/02/pdfs/A23632-23634.pdf>.

39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzen duena eta arreta eskaintzen diena.

<http://www.boe.es/boe/dias/2006/12/15/pdfs/A44142-44156.pdf>.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun eraginkorrerako

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/23/pdfs/A12611-12645.pdf>.

Concilia Plana

http://www.map.es/iniciativas/mejora_de_la_administracion_general_del_estado/uncion_publica/concilia.html

Emakumearen Erakundea. 2008. Emakumeak zifretan. 1983-2008. Emakumearen Erakundea, Madril.

http://www.migualdad.es/mujer/publicaciones/docs/Mujeres%20en%20cifras%201983_2008.pdf.

6.5. NAZIO BATUAK ETA EUROPAR BATASUNA

Nazio Batuen Gutuna. 1945. <http://www.acnur.org/biblioteca/pdf/0002.pdf>

Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (ECHR), Europako Kontseiluarena. 1950.

http://www.migualdad.es/mujer/politicas/docs/1_Conv_Europeo_Derechos_Humanos.pdf

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana. 2012-2015. Arratiako Udalen Mankomunitatea.

Mexikon egindako Emakumeei buruzko Munduko I. Konferentzia. 1975.
<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/mexico.html>

Emakumearen kontra diskriminazio-modu guztiak deuseztatzeari buruzko konbentzioa. Nazio Batuak. 1979.
<http://www.migualdad.es/mujer/politicas/convencion%20cdaw.pdf>

Kopenhagen eginda, Emakumeari buruz Nazio Batuen II. Konferentzia. 1980.
<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/copenhagen.html>

Nairobi eginda, Emakumeari buruz Nazio Batuen III. Konferentzia. 1985.
<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/nairobi.html>

Pekinen eginda, Emakumeari buruz Munduko IV. Konferentzia. 1995
<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/index.html>

Beijingeko Aitorpen eta Ekintza Plataforma aplikatzeko neurri eta ekimen berriak. Nazio Batuak. Ekaina. 2000.
<http://www.cinu.org.mx/biblioteca/documentos/dh/nuemedbeij.pdf>

Estatu kideen Ministro Batzordearen 5. Gom. Gomendioa, indarkeriaren kontra emakumea babesteari buruzkoa, eta Azalpen Memoranduma, 2002ko apirilaren 30ekoa.
http://www.migualdad.es/mujer/politicas/docs/5_Rec_2002_5.pdf

Estatu kideen Ministro Batzordearen 3. Gom. Gomendioa, eremu politiko eta publikoetan erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatuari buruzkoa, 2003ko martxoaren 12koa, eta azalpen-memoranduma.
http://www.migualdad.es/mujer/politicas/docs/4_Recom_2003_3_Participacion.pdf

Emakume eta Gizonei buruz Europako Elkartearen VI. Ministerio Konferentzia 2006.
http://www.migualdad.es/mujer/politicas/docs/1_Informe_spain.pdf

Kontseiluko Batzordearen Jakinarazpena Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Eskualdeetako Batzordeari. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Lan Plana 2006 - 2010.
http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/site/es/com/2006/com2006_0092es01.pdf

Europako Komunitateen Batzordea.
http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/site/es/com/2006/com2006_0092es01.pdf

CM/Rec(2007)17 Gomendioa, Estatu kideetako Ministro Batzordearena, emakume eta gizonen arteko berdintasun-mekanismo eta -arauei buruzkoa. 2007.
http://www.migualdad.es/mujer/politicas/docs/12_Recom_2007_17_C_Europa.pdf

6.6. BESTE ITURRI BIBLIOGRAFIKO BATZUK

Europako Kontseilua. 1986. Sexu-berdintasuna lengoaian. Europako Kontseilua.

Emakunde. 1988. Lengoaia, hitzak baino gehiago. Emakunde, Gasteiz.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana. 2012-2015. Arratiako Udalen Mankomunitatea.

Emakumearen Erakundea. 1995. Nombra en femenino y en masculino. NOMBRA proiektua, Madril.

López, Pilar. 2003. Irudiak modu ez-sexistan erabiltzea. Parekatuz proiektua. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Bengoechea, Mercedes. 2003. Lengoia modu ez-sexistan erabiltzea. Parekatuz proiektua. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Emakunde. 2008. Euskararen erabilera ez sexista
http://www.emakunde.es/images/upload/EuskGida_eu.pdf

6.7. WEBGRAFIA

Arratiako Udalen Mankomunitatea:

http://www.Arratia.net/general/index.asp?Arratia_idioma=CA

Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net

Eusko Jurlaritzia: www.euskadi.net

Emakunde: www.emakunde.es

Ministerio de Igualdad: <http://www.migualdad.es/>

Instituto de la Mujer: <http://www.migualdad.es/mujer/>

Mujeres en red: www.mujaresenred.net

Ciudad de Mujeres: www.e-leusis.net

Eustat: www.eustat.es

INE: www.ine.es

Lanbide: www.lanbide.net